



2019TIK GAURDAINO
DEBAGOIENDARROK, GEROA EREITEN



Zer eskatzen diogu etorkizunari?

Nola irudikatzen duzu zure bizitza hamar urte barru? Nolakoa izango da 2030ean Debagoiena?

Iragarpenak egitea zaila da egun, ziztu bizian aldatzen baitoa guztia. Ikustea besterik ez dago duela urtebetera arte nolakoa zen gure bizitza, eta nola gauden gaur.

Pandemiak goitik behera aldatu dizkigu bizitzak: harreman sozialak zein laboralak, osasun sistemak edo gobernuek sorrarazten dizkiguten segurtasun sentsazioak, aisialdirako aukerak... Egunero, era sinplean eta ia pentsatu gabe egiten genituen jarduera asko eta asko zalantza edo nahasmen bilakatu zaizkigu, eta, urte luzea pasa ostean ere, ez dugu tunelaren bukaerako argia laster aurkituko dugun segurantzarik.

Badakigu, gainera, arazo hau ez dela ez puntuala ezta sinplea ere. Munduaren alde aberatsaren garapen eta bizi ereduarekin lotura zuzena du. Lurrak bizi duen desoreken sakoneko izaera erakusten digun beste ondorio bat gehiago da COVID-19a. Klima aldaketa da aspalditik belarrira oihuka ari zaigun desoreken oihartzun ozenetako beste bat. Gure garapen ereduak, gure gizarte eta ekonomia ereduak bizitza eta ongizatea mantentzeko balio ez dutela esaten ari zaizkigu. Eta bide hobea bilatu ezean, desoreka horren ondorioek arriskuan jarriko dute lurra partekatzen dugun bizidunon etorkizuna.

Aldaketa garaia da, baita lurraren alde oparoena den honetan ere, edo, bereziki, hemen, bizi eredu honen ondorio larrienak ez pairatu arren, desoreken sustrai nagusiak bertan baitira.

Nazioarte mailan, 2030a jotzen da lehenengo mugari garrantzitsutzat. Tarte honetan, munduaren berotze prozesua

geratzea beharrezkoa izango da, 1,5 gradutik behera eustea, klima aldaketaren ondorioz kolapsora iritsi ez gaitezen. Denbora ez daukagu soberan.

Horregatik, bizitzako arlo anitzetan sakoneko aldaketak bultzatzea ezinbestekoa izango da datozen urteotan: industria, energia, mugikortasuna, elikadura, ekosistemen kudeaketa ereduak, kontsumo eta aisialdia...

Ertzetik ertzerantz jendartea eta ekonomiak eraldatzeko, guztion parte hartzea beharrezkoa izango da. Arlo askotariko eragileen –publikoak, ekonomikoak, kooperatibak, hezkuntzakoak, komunikabideak, herrigintza...– eta herritarren inplikazioa eta bultzada izango dira gako eta motor. Aldaketa hauek ez dira bakarrik etorriko, geuk, komunitatea osatzen dugun eragile eta herritarrok, egin behar dugu trantsizioa, elkartu, aktibatu eta mugiaraziz. Horregatik, izaera global eta konplexua duten erronkak eraldatzeaz ari bagara ere, tokikotasunetik artikulatu behar da aldaketaren bultzada, mugimendu zein efektu horien batuketatik eraldaketa globala sortuz.

Testuinguru honetan, Debagoiena 2030 ekimena eskualdean olatu eraldatzailea

Klima aldaketa da aspalditik belarrira oihuka ari zaigun desoreken oihartzun ozenetako beste bat

sustatzea helburu duen elkarlan sarea izateko jaio da, eta eskualdeko askotariko sektoreetako hainbat eragilek sustatu dute –Mankomunitatea eta hainbat udal, kooperatibak, unibertsitatea, ikerketa eta berrikuntza eragileak...–. Arloz arlo eta herriz herri, elkarlan sarea ehuntzen jarraitzea eta eskualdea bere osotasunean jostea du helburu, elkartasuna eta elkarlana oinarri.

Bi urte dira Debagoiena 2030 ekimena jaio zela, eta hastapen fase honetan, batetik, sakoneko eraldaketa bultzatzeko gakoak definitu eta lehen ekintzak aktibatu dira. Bestetik, eskualdeko hainbat eragileren artean etorkizuna amestu eta bisio honen bidez adierazi dugu: lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2050erako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena.

Esku artean duzun dokumentu honetan jaso ditugu Debagoiena 2030aren iparra, oinarri zein lanabesak eta orain arte egindakoak. Debagoiena 2030 ekimena komunitatearen eta bere beharren mesedetara dagoen tresna bat da, etorkizuna jomugan duen elkarlan dinamika. Debagoiena 2030 eskualdearena da.

Debagoiena 2030 ekimena eskualdean olatu eraldatzailea sustatzea helburu duen elkarlan sarea izateko jaio da



'ZER DA DEBAGOIENA 2030?' BIDEOA IKUSI

Sorrearik gaur arte

2019ko urtarrilean sortu zenetik, erronka globalei tokiko eskalatik erantzutea izan du helburu ekimenak. Bide horretan hainbat izan dira emandako urratsak: sarekideen arteko abiapuntuko hitzarmena sinatzea, nazioarteko aliantzak, eskualdeko eragileen foroak, lehen proiektuak abiatzea...



Eskualdeko eragileen foroak egin zen

Egitasmoak askotariko eragileen arteko elkarlana du oinarrian hasieratik. Horregatik, entzute-prozesuan ordura arte jasotakoa partekatu, osatu eta aberasteko helburuarekin, foro bat antolatu zen 2019an. 80 bat partaide batu ziren Eskualdeko Sarearen I. topaketara.



Eragin beharreko erronken identifikazioa

2019ko entzute-txostenaren emaitzetan oinarrituta, eragin-eremuen identifikazioa egin zen. Hauek dira zehaztutako eremuak: Lanaren etorkizuna, Energia, Mugikortasuna, Elikadura sistemak, Hezkuntza, Ekonomia Zirkularra, Inklusioa eta Komunitatea.

2020 martxo



Sustatzaileen arteko hitzarmena sinatzea

XXI. mendeko erronka globalei erantzun propioa emango dien eraldaketa mugimendua sustatzeko sortutako egitasmoa bultzatzeko asmoa erakutsi zuten, Eskoriatzan egindako aurkezpenean, D2030 egitasmoa Gobernu Batzordea osatzen duten hamahiru erakundeek.



2020 urria

Trantsizio energetikoaren erronkaren prozesua

Debagoieneko etxebizitzaren eta eraikinen energia-ereduaren gaineko azterketa abiatu zuen Debagoiena 2030 ekimenak, eskualdeko hainbat eragilerekin elkarlanean, eta Debagoieneko trantsizio energetikoaren eragiteko ildo desberdinak identifikatu zituen bide hartan.

2020 abendua

Trantsizio energetikoaren prozesuaren lehen emaitzak

Trantsizio energetikoaren erronkari lotuta abiatutako prozesuak emandako lehen emaitzak aurkeztu ziren Debagoieneko hainbat eragilerekin martxoaren 3an egindako online saioan. Bertan, ateratako lehen ondorioak partekatu eta modu kolektiboan aztertu ziren.



2021 martxo

2019. urte hasieran abiatu zen ekimena

2018an zehar Debagoieneko hainbat eragileren artean burututako hausnarketa eta elkarriketa prozesuaren ondorio moduan sortu zen ekimena. Erronka berriei modu berritzailean eta elkarlanean erantzuteko helburuarekin. 2019. urte hasieran ekin zion bere bideari.

2019 urtarrila

2019 otsaila

Lan-prozesua abiatu zen

Zuzendaritza Teknikoa sortu zen, ekimenak behar duen prozesua bideratzeko. Eskualdeko hainbat eragilek osatu zuten taldea: Gizabidea Fundazioak, Emunek, Mondragon Unibertsitatea, Goiena Komunikazio Taldeak, Saiolanek, Fagorrek eta ALCK.

2019 urtarrila



Gobernu Batzordeak lehen bilerak egin zuen

Ekimena garatzen hasteko, lankidetzazko gobernantza ereduaren aldeko apustua egin zen. Debagoieneko eragile esanguratsuenak daude ordezkatuak: erakunde publikoak, kooperatibak, unibertsitatea, gizarte eragileak, eta abar.

2019 uztaila

Climate KICekin lankidetzak adostu zen

Europako Batasuneko Climate KIC erakundearekin akordioa adostu zen, klima aldaketari aurre egiteko eta eskualdearen sakoneko eraldaketa sustatzeko. Helburu horrekin, tokiko eragileekin eta nazioarteko eragileekin hainbat hausnarketa-saio egin ziren.



2019 azaroa

2019 abendua

Lehenengo entzutearen emaitzak kaleratu ziren

Debagoieneko erronka nagusiak identifikatu eta herritarren iritzi eta pertzepzioei balioa emateko, entzute-prozesu bat abiatu zen 2018 amaieran. 150 pertsonak hartu zuten parte prozesu hartan eta 2019ko abenduan Entzutearen Laburpen Txostena osatu zen.



2020 martxo

Ekimenaren bisioa eta misioa adostea

Helburuak eta ambizioak zehazteko 2019ko urtarrilean abiatutako hausnarketa-prozesuari itxiera emanez, D2030 ekimenaren bisioa eta misioa onartu zituen Gobernu Batzordeak. Hausnarketa saioetan, Europako Climate KIC eta IPPP izan zituen bidelagun ekimenak.



2020 uztaila

Lehen hamalau prototipoen hautatzea

Portfolioa askotariko sektoreetako eragileen prototipoek osatzen dute eta erronka da irtenbideak diseinatu eta testatzea eta eskualdearen eraldaketarako gakoak identifikatzea. Eraldaketan modu sakon eta konektatuan eragiteko, proiektuak elkar ekintzan jartzea bilatzen du.



Aurkezpen saioa, online

Pandemia egoerak hala bultzatuta, herritarrei ekimenaren nondik norakoak azaltzeko online saioa egin zen. Bertan parte hartu zuten ekimeneko zuzendaritza teknikoa osatzen duten hainbat lagunek. Helburuak, egindako bidea eta hurrengo urratsak azaldu zituzten bertan.



2021 apirila

Lana eta inklusioaren erronka

Bigarren erronka baten prozesua abiatu du D2030ek: lana eta inklusioarena. Lehenengo urratsak izango dira erronka bera ezagutu, aztertu eta D2030etik lortu nahi diren helburuak definitu.

"Eskualdeak duen potentzial handia elkarlanetik artikulatzea izango da gakoa"

ELENA HERRARTE

D2030EKO KOORDINATZAILE NAGUSIA

Elena Herrarte da Debagoiena2030 ekimeneko koordinatzaile nagusia. 2019an ekimena sortu zenetik gaur arteko ibilbidean egindakoak azaldu ditu; bidean ikasitakoak, martxan jarritako proiektuak eta etorkizuneko asmoak

Badira bi urte Debagoiena 2030 ekimena sortu zela. 2019ko urtarrila hartan, zergatik sortu zen eta zertarako?

Oso haitemangarria ez bada ere, erronka oso konplexuen garai bat bizi izaten ari gara; aldaketa oso handiak gertatzen ari diren une bat. Horren aurrean estrategia bat artikulatu beharko dugu, iraunkorra, inklusiboa eta adimentsua izango den eskualde bat egitura-tzeko. Klima aldaketa da erronketako bat; badakigu bere eraginak hurrengo urteetan kontrolatzen ez baditugu kolapso egoera etor daitekeela. Ingurumenaren eta karbono isurketen ikuspuntutik, une honetan gure eskualdeak sortzen dituen karbono isurketak konpentsatzeko lau planeta beharko genituzke. Hori da, nolabait, guk uzten dugun arrastoa planeta honetan. Horren aurrean aldaketa sakonak egin beharko dira hainbat arlotatik; gisa honetako erronkei ezin zaie teknologiatik edo politika publikoetatik bakarrik konponbidea eman, eta proiektu isolatuak logikak ez dira nahikoa izango.

Erronka konplexuetan sakoneko eraldaketak eragiteko arlo guztietatik egin beharko dugu tira eta norbanako bakoitzaren bizitzan ere gauza asko aldatu beharko dira. Gauza asko birpentsatu beharko ditugu eta birsortu beharko ditugu. Eta, nahiz eta arazo horiek oso globalak diren, soluzioen bilaketa horretarako eskala aproposa izango da tokikoa.

Debagoiena 2030. Garapen Iraunkorrerako

"Klima aldaketaren erronkan aldaketa sakonak beharko dira"

"Konplexutasun honi ezin zaio proiektu bakarrekin erantzun"

Sarea zarete eta horrela dio, hain zuzen ere, egitasmoaren izenak berak. Zer esan gura du horrek? Zer esan gura du horrek?

Bi urte daromatza Debagoiena 2030ak denbora-iparra erakusten digu, eta urgentziaren nozioa. Gero, hiru hitz horiek erabiltzen ditugu; Garapen Iraunkorrerako Sarea. Bakoitzak badauka bere pisua eta bere inportantzia. Alde batetik, garapenaren kontzeptua dago; azken hamarkadetakoa garapen ereduak dimentsio ekonomikoa

"Garapen iraunkorrerako, gure bizitzetako arlo asko aldatu beharko dira"

"Erronkak ez dira etorkizunekoak; dira gaur eta hemen"

lehenetsi du. Horrek esan nahi du ezinbestekoak diren beste arlo batzuk bigarren maila batean utzi ditugula. Eta, bereziki, momentu honetan une kritiko bat bizi dugu ingurumenaren arlo horrekin. Garapen iraunkorraren markoak eramaten gaitu irudikatzena garapen eredu orekatu bat, dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa orekan barnebiltzen dituen. Eta gero, sarearen kontzeptua dago. Sektore, ezagutza edo bizi esperientzia anitzeko eragile eta norbanakoen elkarlana izango da hurrengo urteetan eraldaketa sakona lortzeko estrategia eraginkorrena. Denen ekarpena beharko da.

2050erako inklusiboa, adimentsua eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena bateranzko trantsizioa ahalbidetuko duen lankidetzaren sare irekia zarete. Zergatik eta nola iritsi zarete bisio ehorri zehaztera?

Bi urte daromatza Debagoiena 2030 ekimenak martxan. Ibilbide horretan egindako lehenengo lana izan da, eskualdea hobeto ezagutzea: dauden eragileak, dauden dinamikak... Bestetik, eskualdeko askotariko eragile eta herritarrekin elkarriketa dinamikak aktibatzen ditugu. Elkarrekin testuinguru historiko honen eta ditugun erronken inguruko hausnarketa egiteko; eta horren baitan ipar bat finkatzera iritsi gara, trantsiziara bidean ilusionagarria eta baliagarria izango dena.

Bisio hori finkatzeko ariketa D2030en Gobernu Batzordearen baitan egin da. Hor ordezkaturata daude eskualdeko hainbat sektoretako eragile gakoak: alde publikotik, hiru udal handienak eta Mankomunitatea; eskualdeko bi enpresa talde kooperatibo handienak; unibertsitatea; Mondragon Korporazioa; Garaia Berrikuntza Gunea; eta beste hainbat eragile.

Erronka oso potolo eta konplexu horri nola erantzun behar zaio? Zein da gakoa?

tzun behar zaio? Zein da gakoa?

Gakoa da ulertzea konplexutasun handi batez ari garela, hau ez dela erronka zehatz bat edukiko duena erantzun bakarra eta proiektu bakar batean irudikatu daitekeena, baizik eta beste begirada bat behar duen egoera bat dela. Garapen eta bizi eredu iraunkor baterako jauzia egiteko, gure bizitzetako arlo asko sakonetik aldatu beharko dira: energia eta industria ereduak, mugikortasuna, elikadura sistemen dinamikak, arlo sozialaren desoreka egiturak... Horretarako, pertsonok eta komunitate gisa ditugun balio, gaitasun eta dinamikak berritzea ere beharrezkoa izango da. Gainera, gizarte inklusiboagoa izateko beharrezko mekanismoak ere landu beharko dira. Beste gako bat elkarlanaren ideia da. Klima aldaketaren dilema, esate baterako, ez dugu gaitasunik garapen teknologikotik etorriko diren soluzioetatik bakarrik. Oso erronka konplexuak dira egungo jendarteak eskuartean ditugunak, multidimentsionalak. Sistema hori aldatzera bagoaz, ez dugu lortuko proiektu espezifikoaren logikatik. Erronkei beren dimentsio anitzetatik eragiteko, arlo ezberdinetako eragileak, bakoitzak bere lan arloetan egin behar dituzte aldaketak, helburu partekatuta batera bidean.

Norabide horretan, joan den uztailan ekimenak aurkeztu eta onartu egin zuen bere lehenengo ekintza, esku-hartze multzoa, portfolio izenekoa; logika desberdin bat.

Estrategia bat da, edukiko dituen hainbat arlotan ekintza edo esku-hartze proposamen edo proiektuak, baina elkarren arteko elkarreagin dinamikari jardungo dutenak; hori da portfolioaren logika. Konplexutasunari erantzuteko proposamen metodologiko bat izango da. Hala, joan den urteko uztailan, lehenengo hamalau prototipoak martxan



Elena Herrarte.

jarri genituen; ez hainbeste inpaktu handiko interbentzio bati begira, baina bai elkarreaginean jardungo duen ekosistema baten dinamika hori zelaz garatu daitekeen ikasteko logikatik. Hemendik aurrera, helburua da portfolio hori osatzen jarraitzea erronketan izango dugun inpaktu handiagotzeko.

Momentu honetan, gainera, hainbat lan-ildo dituzue. Energia; lana

eta inklusioa; eta lanaren etorkizuna. Zergatik?

Energia trantsizioaren erronka da iraunkortasunaren helburura bidean funtsezkoa izango den arlo bat. Karbono azitarnaren zati handi bat sistema energetikoan oinarrituta dago, eta gure bizitzako arlo guztietan oinarritzea den arlo bat da. Energia behar dugu bizitzeko, eta energia horren oinarrian eraikitzen da gainerakoa. Hala, badihardugu

dagoeneko gai hori lantzen eskualdeko eragileekin elkarlanean. Bestetik, lanari dago-kionez badihardugu erronka espezifikoaren baitan interbentzio batzuk diseinatzen, inpaktu handiago baten bila. Badakigu eskualde hau bizigarria izatea gura badugu etorkizunean ere, lana oinarri funtsezkoa izango dela. Industriaren trantsizioa sustatzea ildo gakoa izango da eredu deskarbonizatu eta digitalizatu baten norabidean. Inklusioaren gaia ere lehenetsuzkoa da. Gero eta konplexutasun handiagoa duten gizarteak ditugu, eta, nahiz eta orokorrean gure eskualdean oparotasuna izan dezakegun, badago jendea aukera berdintasun horren norabidean atzean geratzen ari dena. Gainera, hurrengo urteetan gertatuko diren aldaketa sakon horietan, arrakala hori handitzeko arriskuak ere ikusten ditugu.

Zer nabarmenduko zenuke azken bi urte hauetatik? Zer ikasi duzue?

Eskualde honek potentzial handia duela, esaterako. Agian, gauza batzuk oso agerikoak dira: badauzkagu kooperatibak, badauzkagu unibertsitateak... Baina hasten zara herriz herri eta arloz arlo begira, eta kontrolatzen zara oso eragile potenteak daudela, dinamika, proiektu, esperientzia eta pertsona oso potenteak. Egia da, bestalde, potentzial hori nahiko sakabanatuta dagoela. Ekosistema bezala bakoitza bere frontean ari da lanean, elkarren arteko ezagutza nahiko txikia dago. Horregatik, elkarlana bultzatzea eta ekosistema hori artikulatzea ere izango dugu helburu. Bukatzeke, esango nuke eskualde honetan beti egon dela aldaketarako eta erronken aurrean aktibatzeke grina hori. Gu geu ere energia edo begirada horretatik hasi ginen D2030 honi forma ematen. Izan ere, askotan esaten da etorkizuneko erronkak direla, baina ez dira etorkizuneko erronkak. Erronkak dira gaur eta hemen.



ELKARRIZKETA OSOA BIDEOAN IKUSI

Debagoiena 2030, askotarikoa

D2030 ekimenaren lanabes garrantzitsua da, besteak beste, lankidetzak. Hala, izaera askotariko erakundeak dira proiektuko kide; instituzio publikoak, kooperatibak, unibertsitateak zein bestelako erakundeak. Erakunde horietako ordezkariak adierazten dute ondoen, D2030en balioa eta kide izatearen garrantzia



MAITE ANTON
DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

"Eskualde moduan batzen gaituen erakundea izanik, ezinbestekoa da ekimen honen parte izatea"



MARIA UBARETXENA
ARRASATEKO UDALA

"Pertsona guztien konpromisoa ezinbestekoa da gure herrian eraldaketa gauzatzeko"



GORKA ARTOLA
BERGARAKO UDALA

"Bergararen izaera ekintzaileari elkarlana eta norabide estrategikoa gehituko dizkio D2030ek"



IZARO ELORZA
OÑATIKO UDALA

"Erakunde publiko bezala, gure betebeharra eta nahia da, herritarren beharrei erantzutea"



MARKEL OLANO
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

"Elkarlanetik egingo dugu aurrera, gizarte aurreratu, berdinzale eta moderno gisa"



JOXEAN ALUSTIZA
FAGOR TALDEA

"Lankidetzan eta interkooperazioan sinesten dugu, batzuek indarrak biderkatzen dituelako"



LANDER DIAZ DE GEREÑU
ULMA TALDEA

"Erronkarik handiena da gizarteari D2030en helburuak beharrezkoak direla sinetsaraztea"



NAGORE IPIÑA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

"Erronka konplexuen aurrean, hezkuntza komunitate konprometitua sustatuko ditu ekimenak"



IKER AGIRRE
TXATXILIPURDI

"Erronkei aurre egiteko ezinbestekoa dugu komunitate anitza erdigunean duen lankidetzan jardutea"



IBAN ARANTZABAL
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

"Komunitategintzan inbertitu behar da: debagoiendarron GU zabal hori subjektu izateko"



KIRSTEN DUNLOP
CLIMATE KIC

"D2030 egitasmoa trantsizio ekologikorako esperientazio gune pribilegiatua da"



GORKA ESPIAU
AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER

"Bizitako ikasgaiak (Basque Case) erabiltzen ari gara etorkizuneko erronkak kudeatzeko"



Elkarrizketa saioetako bat.

Eraldatzeko, ezinbestekoa da egoera ezagutzea



ONINTZA LEGORBURU EMUN

Zerbait eraldatzeko edo transformazio bat gertatzeko, garrantzitsua da abiapuntuko egoera ezagutzea. Hau da, ezinbestekoa da aldatu nahi den hori, egun, zer egoeratan dagoen jakitea eta aztertzea.

Egoeraren azterketa hainbat modutan egin liteke. Norbanako batek egin lezake bakarkako irakurketa bat. Gure kasuan, ordea, D2030ek DNAn daraman lankidetzaren oinarritzat hartuta, taldean egin dugu lan. Zehazki esateko, hainbat bidelagunekin: EMUN Kooperatiba, Txatxilipurdi Elkarte, ALC eta Lanki.

Esplorazioa bide

Egoeraren azterketa hori egiteko, hainbat teknika erabili litezke. Debagoieneko jendarrean dauden kezka eta beharrak ezagutzea helburu izaki, entzute edota esplorazio orokor baten bidez ekin genion prozesu horri, 2019an.

Jendearen kezka eta beharrak ezagutzeko asmoz, logikoena jende ezberdinarekin egotea zela pentsatu genuen; gugandik gertu egon litezkeenekin, baina baita gure bizimodu edota bizi eredutik urrun egon litezkeenekin ere. Horretarako, bakarkako 148 elkarrizketa, hamar talde eztabaida eta bost kontraste saio egin genituen.

Elkarrizketatu genituen irakasleak, langabeak, ikasleak, arrotzak, industriako langileak, etxekoandreak eta erretiratutak. Bizi esperientzia ezberdinak

ezagutu ahal izan genituen, baita bizi esperientzia horiek dakartzaten kezka, erronka eta beharrak ere.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu liteke enpleguak eta gizarte berdinago baten nahiak batzen gaituela: enpleguaren ganako kezka, hau da, enpleguak azken hamarkadetan bizi izan dituen aldaketak dira kezka nagusi gure ibarrean. Bestalde, eta eskualdeak izan dituen aldaketa soziodemografikoak medio, kultur aniztasunaren gaia ere erronkatzat dute debagoiendarrek.

D2030ek DNAn daraman lankidetzaren oinarri, taldean lan egin dugu

Enpleguak eta gizarte berdinago baten nahiak batzen gaitu, oro har

Lehentasunetan aldaketa
Halaber, 2019a ezkerro Debagoieneko egoera COVID-19a dela-eta nahikotxo aldatu zela iritzita, 2020an beste esplorazio bat egin genuen. Kasu hartan, pandemia egoera ardatz hartuta, debagoiendarren kezka edota beharrak zertan aldatu ziren ezagutzea izan zen helburua. Horretarako, aurretik erabilitako entzute teknikez gain, beste berri batzuk probatu genituen, hala nola kaleko 53 elkarrizketa motz; behaketak; prentsako hainbat berriren analisia; galdetegi bat; gazteekin berariazko entzutea eta bakarkako hamabi elkarrizketa.

Debagoiendarren kezka-gaietan gerta zitezkeen aldaketak hautematea zen 2020ko entzutearen helburua; hala ere, ez genuen aldaketa nabarmenik antzeman. Bat nabarmentzearen, osasunak aurretik ez zeukan presentzia hartu zuela. Baina, oro har, aurretik zeuden kezken handitze bat jaso genuela esan liteke. Hau da, enpleguaren gaiak eta ezberdintasun sozialak handitzeak jendartean kezka nabarmena eragiten jarraitzen zutela ondorioztatu genuen.

Hasieran aipatu dugun moduan, egoeraren ezagutza ezinbesteko bilakatzen da eraldaketa gerta dadin. Entzute horren bidez, eraldaketa horretarako ale izan litezkeen prototipo edota proiektu ideia batzuk ere identifikatu genituen.

Jakitun izan behar dugu ezer eraldatzeko ezagutu beharra daukagula lehenengo, eta ezagutza hutsean ezin garela gelditu.

2020ko entzutean, osasunak aurretik ez zeukan presentzia hartu zuen

Proiektu isolatuetatik konektatutako ekintza multzora


Debagoiena 2030 ekimenaren xedea eskualdea eraldatzea da, eta, horretarako, ekintzara pasatzea ezinbestekoa da. Helburu horri erantzuteko asmoz, 2020ko uztailan onartu zen lehen proiektu multzoa



Hazi Berriak

Bazterkeria arriskuan daudenentzako proiektu integrala.


Erakunde sustatzaileak:
GU HAZIAK GARA



Tantai Baso Jabe Kooperatiba

Basogintza iraunkorragoa sustatzea da prototipo honen helburua.


Erakunde sustatzaileak:
ERREZ KOOP. ELK. TXIKIA



E-labs

Industria-trantsizio iraunkor baterako elkarlana bultzatu gura da.


Erakunde sustatzaileak:
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI
ESKOLA POLITEKNIKOA



FV etxean

Etxebizitza komunitate batean autokontsumorako fotovoltaikoak ezartzeko prozesua.


Erakunde sustatzaileak:
ARRASATEKO UDALA / H-ENEA /
EKITERMIK



DAP, Debagoieneko Antzerki Plataforma

Kultur arlotik abiatuta eraldaketa soziala sustatzeko plataforma.


Erakunde sustatzaileak:
DEBAGOIENEN ANTZERKI PLATAFORMA



BHR, Bero hondakinen errekupeazioa

Industria bero soberakinarekin energia elektrikoa sortzeko proiektua.


Erakunde sustatzaileak:
EKITERMIK



Jangelak hornitzeko Debagoieneko plataforma

Eskualdeko jangelak tokiko produktuekin hornitzeko plataforma.

Erakunde sustatzaileak:
EREINDAJAN BERGARA



Industria-inguruneetako ikaskuntza-soluzioak

Langileen ikasketa prozesuak malguagoak eta eraginkorragoak bilakatzea.


Erakunde sustatzaileak:
MONDRAGON KORPORAZIOA



Energia komunitateak

Energia Komunitate Berriztagarri bat edo batzuk definitu eta martxan jartzea.

Erakunde sustatzaileak:
GOIENER



Platform coops

Kooperatiben digitalizazio plataforma, tresna eta eredu berriak sortzeko.


Erakunde sustatzaileak:
MONDRAGON UNIBERTSITATEA /
MONDRAGON KORPORAZIOA



Arizmendi-Torrebaso

Iraunkortasuna ardatz duen proiektua irudikatzea eta diseinatzea.

Erakunde sustatzaileak:
ARIZMENDI IKASTOLA



Goiena Eraldatzailea

Komunikazio eraldatzailea sustatzea, komunitatearekin lankidetzara ereduak oinarri.

Erakunde sustatzaileak:
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

"Trantsizio energetikoan herritarrak bereganatu egin du aldaketa beharraren ideia"

ARITZ AMEZTEGI

PROIEKTU KOORDINATZAILEA

Debagoiena klimatikoki neutroa izateko urratsen artean dago trantsizio energetikoaren bueltan Debagoienak dituen erronkei buruz egin duten diagnostikoa. Aritz Ameztegi da azterketaren egileetako bat

Debagoieneko trantsizio energetikoari buruzko azterketa egin du D2030ek. Zergatik heldu diozue gai honi? Zein garrantzi du?

Alde batetik, Europatik datozen irizpide gehienak berdez jantzita datoz. Azken urteetako bilakaera nabarmena da eta iruditzen zitzagun lerrotatuta behar genuela. Badakigu aldaketa klimatikoak epe bat

duela. Badakigu 2050erako ezin dela 1,5 gradu baino gehiago igo planetako tenperatura. Hori lortzeko, hazia orain erein behar dugu. **Zelakoa izan da diagnostikoa egiteko bidea?**

2019an hasi ginen hainbat elkarrizketa egiten energiaren gaiaren bueltan diharduten eskualdeko hainbat eragilerek. Pandemiak gelditu egin zuen lana eta 2020an berrartu genuen. Alde batetik, hainbat eragile elkarrizketatu ditugu (udalak, Garapen Agentzia, Suradesa), baita adituak ere: IHOBE, Energiaren Euskal Erakundea, Teknalia, Ikerlan... enpresa txikiak ere bai. Baita zaleak deitzen diegun horiek ere, herri guztietan daudelako ingurugiro arloan edo energia berriztagarrietan nabarmendu diren pertsona ugari. Hori osatzeko hainbat txosten aztertu ditugu. LKSk bere garaian egin zuen Debagoieneko aztarna ekologikoaren txostena, esaterako. Horretatik guztiatik informazioa atera da eta hori da analisiaren oinarria.

Zelakoa da Debagoienaren eta trantsizio energetikoaren arteko harremana? Zein punturaino dago Debagoieneko enpresen, erakundeen eta herritarren agendan?

Erakunde publikoek badituzte horrelako gaiak txertatuta, bakoitzak bere neurrian eta bere lehentasunekin. Hauek Europatik ere irizpide argiak emanda daudelako nahiko lerrotatuta



Aritz Ameztegi.

daude. Bestetik, daude enpresak eta herritarrak. Enpresek euren bidea egin behar dute, askoz ere konplexuagoa. Ideala litzateke kutsadurarik ez izatea eta karbono aztarna horrelako gaiak txertatuta, bakoitzak bere neurrian eta bere lehentasunekin. Hauek Europatik ere irizpide argiak emanda daudelako nahiko lerrotatuta

aldaketa beharraren ideia, baina oraindik ez da bere lehentasunetan sartzen. Elkarriketatik aterata da: herritar batek nahiago du dirua furgoneta batean gastatu, eguzki plakak jartzen gastatu baino. **Zeintzuk dira eskualdeak dituen indarguneak?** Hasteko, inguruneak berak ematen dizkigunak daude. Egia da ez daukagula zentral handi

bat jartzeko aukerarik, eta argi dago ez daukagula Extremaduran dagoen eguzkia. Hala ere, eguzkia badaukagu, ura badaukagu, Oñatiko Ur Jauziak adibide. Haizea ere badaukagu, Elgea adibide, eta izugarriko baso pila bat ere badaukagu; beraz, biomasa ere badugu. Hasiera batean, potentziala, nahiz eta izugarrikoa ez izan, badaukagu. Bestetik, daukagun beste indargune bat da ezagutza, berrikuntza eta industria ekosistema garatu bat, baita elkarlanerako kultura bera. Hori oso lagungarri da beste lan-ildo batzuk garatzeko. Bestetik, azpimarratuko nituzke bi ideia. Batetik, gizarteak bereganatu duela aldaketa beharra. Baita ideietatik ekintzetara pasatzeko ordua dela. Eta bestetik, berriz nabarmendu elkarlanaren ideia. Tren honetara gizarte osoak igo behar du, eta horrek badu bere zailtasuna.

Eta ahulguneak?

Nik uste dut denboraren kontzeptua ez dugula oso garbi. Epe batzuk bete behar ditugu eta nik uste dut herritarrek irudi hori ez dutela barneratu; seguru asko, hiztegi aproposik ez dugulako erabiltzen eta termino oso konplexuetan galtzen garelako. Beraz, hor badugu

lanketa bat. Bestetik, ahulgune bezala adieraziko nuke gure kontsumoa murrizteko zailtasuna. Eraikuntza sistema berriek neutroa izatea, baina eraikuntza zaharretan, birgaitzeetan, lanketa handia dugu. Hor dago Suradesa, eta dagoeneko lantzen duen egiten du, baina besteak lagundu egin behar diogu bide horretan.

Nola gaude beste eskualde edo herrialde batzuekin alderatuta?

Esango nuke Euskal Herrian ez dagoela desberdintasun nabarmenik. Beste herrialde batzuekin alderatuta, esaterako, Italiako Piamonteko esperientzia ezagutu dugu, eta haiekin alderatuta pare bat urteko atzerapenarekin goaz. Haiek ari dira duela pare bat urteko komunitate energetikoekin lanean. Danimarka eta horrelako herrialdeak ere aurretik doaz, baina, oro har, batez beste gaudela esango nuke.



TRANSIZIO ENERGETIKOAREN ERRONKAREN BIDEAK IKUSI

"Erronka konplexua da energiarena, jendartea guztiz zeharkatzen duena"

JONE ESPILLA PROZESU ZUZENDARIA

Eskualde adimentsu, inklusibo eta klimatikoki neutro baterantz bidean, trantsizio energetikoaren erronka nagusienetakoa da. Horregatik, D2030aren Gobernu Batzordeak lehentasunez lantzeko erabakia hartu zuen 2020an. Hori horrela izanda, 2020ko urrian erronka horri erantzuteko prozesua abiatu zen.

Denok dakigun moduan, erronka konplexua da energiarena, jendartea alde batetik beste zeharkatzen duena. Energiaren erronka ekonomia, mugikortasunaren, elikaduraren, etxebizitzaren eta beste hainbat arloren oinarrietako bat da, eta, horregatik, ezinbestean begirada sistemikoa behar dugu oinarri inpaktuzko erantzuna

diseinatu nahi badugu. Baina begirada sistemikoa diogunean, zertaz gabiltza? Hain zuzen ere, egungo erronka konplexuak sistemen logikan ulertzea behar dugu, sistema elementu anitzez osatuta dago eta osotasun dinamikoko horretan elementu edo faktore bakoitzak besteekiko eragina izango du momentu oro. Begirada sistemikoa erronka elementu isolatu baten moduan ulertu beharrean, konektaturik dauden elementu anitzen sistema moduan ulertzea datza. Energiaren erronkaren kasuan, zehazki, ekonomia, teknologia, legediaren, sineskeraren eta beste hainbat elementu edo faktoreen eragina izango dugu, hain zuzen ere.

Horren harira, egin dugun lehen urratsa erronkaren sakoneko

ulermena sortzea izan da, konplexutasunetik eta kolektiboki. Ondoren, inpaktu handiko erantzuna emateko, eragile anitzen implikaziotik eta mota askotariko ekintzen bidez, erronkaren erpin ezberdinetan eragiteko helburua izango duen esku-hartze proposamena aktibatzea izango da bidea. Orain azaldu berri dugun sistema horretako elementuetan eragitea beharrezkoa izango dugu inpaktuzko eragina lortzeko.

D2030etik martxan jarri dugun trantsizio energetikoaren erronkaren prozesua orain azalduko ditugun hiru fase jarraituk osatzen dute, non helmuga batera heltzeko gaur egungo egoeraren ulermena eta bidea diseinatzea helburu duten, ondoren,

diseinatutako hori desberdinen artean gauzatzeko.

Lehenengo urratsa **esplorazio**arena izan da, 2020ko urritik abendura bitarte, eta helburua eskualdeko egungo ekosistemaren errealitatea ezagutzea zen, aukera eta mugak identifikatuz. Horretarako, bizipen askotariko 22 eragile elkarrizketatu ziren, 24 ikerketa zein txosten landu eta zazpi legedi eta bi plan aztertu, besteak beste.

Esplorazio fasearen ondorengo urratsa **analisis**arena izan da, 2021eko urtariletik martxora bitarte, esplorazioan jasotako eduki gakoaren sakoneko lanketa eginda. Analisi fase horren muina modu kolektiboan edukia lantzea izan zen, azperronka zehatzen pertinentzia

erabakitzeak, eta, horretarako, martxoaren 3rako saio irekia antolatuta genuen; hala, eragileen zein herritarren artean 50 pertsonaren partaidetza lortu genuen —beharrezkoa, aurretiaz aipatu dugun inpaktuzko erantzuna lortzeko—.

Eta, azkenik, **esku-hartzea** izango genuke, hurrengo hilabeteetan uztaile bitarte gauzatu dena. Analisi faseatik ateratako azperronkei erantzuteko esku-hartze plana definitzea, behin azperronkak definituta izanik, eragile anitzen artean horietariko bakoitzaren lanketa egin, plangintza bateratua adostu eta erronkari erpin ezberdinetatik eragiteko bideari ekin!



Jone Espilla.

"MARTXOAREN 3KO SAIOAN 50 PERTSONAK HARTU ZUTEN PARTE"

Debagoieneko eraldaketa bultzatzeko aletxoak

Debagoiena potentzial handia duen eskualdea da, bertako eragileengatik zein martxan dauden ekintza eta proiektuen ikuspuntutik ere; *Debagoiena eraldatzen* erreportaje sorta honen bidez, transformaziorako aukera horiek erakutsi gura dira




Debagoiena, trantsizio energetikoari heldu nahian

Debagoiena askotariko alorretan izan da "bailara eredugarria", baina, antza, klima larrialdiari dagokionez ez da horrela. Ikerketek erakutsi dutenez, munduko pertsona guztiak debagoiendarrek beste CO2 isuriko balute, lau mundu beharko genituzke aurrera egiteko.



Digitalizazioa: mehatxu ala abagune?

Teknologia berriak baliatzea geroz eta ohikoagoa da gure egunerokotasunean, eta COVID-19aren pandemiak argi utzi du hori: telelana, online eskolak, bideo-deiak... Arlo guztietan du eragina, eta, etorkizunari begira, gakoa izango da teknologia berrietara egokitzeko gaitasuna izatea.



Kultura, gizarte eraldaketarako

Debagoiendarrak eta gizartea bera etengabe eraldatzeko balio duen tresna indartsuenetakoa da kultura. Izan ere, kultura, bere adierazpen guztietan, beti egon da bestelako iruditegi, diskurso eta mugimenduei tokia egiteko lanean. Eta egoera zailenetan ere, kulturak beti daki arnasten.




Euskaraz lan egitea posible da

Debagoieneko erakundeak eta enpresak aitzindariak izan da euskara planetan, eta bailararen ezaugarriek eragina izan dute horretan. Baina zein da gaur egungo egoera? Zein erronka ditu euskarak lan esparruan eta nola egiten diote aurre horri enpresetan? Asko da lortutakoa, baina badago egitekorik ere.



Hezkuntza sistema, inklusiorako bidean

Hezkuntza sistemaren izaeraz, erronkez eta norabideez hausnartzea du helburu erreportaje honek. Aurrerapauso handiak eman dira hezkuntzan, baina, hezitzaileen ahotan, ez nahi bestekoak. Hezkuntza sistema benetan inklusiboa izan dadin, asko dago egiteko oraindik ere.



Planetaren osasuna, gure ekonomiaren menpe

COVID-19ak osasuna jarri du erdigunean, baina baita ekonomia ere. Gauza jakina da pandemiak ekonomian utzi duen arrasto latza. Baina zer da ekonomia? Zein eremutara iristen da? Eta zein lotura dago ingurumenaren, ekonomiaren eta izurriaren artean?



Ekonomia zirkularra berbagai

Erabili eta bota filosofiarekin bat egin du gure gizarteak, baina jakin badakigu hori arazo larria dela ingurumenarentzat. Hala, eredu hori atzean utzi eta beste produktzio- eta kontsumo-molde batzuk sustatzeko nahian, ekonomia zirkularrak egiten duen proposamena geratzeko etorri da.



Zeintzuk izango dira etorkizuneko lanpostuak?

Ikasketak egin eta bizitza osoa lanpostu berean —eta zeregin bera modu berean egiten— igarotzearena amaitu da. Digitalizazioa eta robotizazioa gure artean daude, dagoeneko iritsi dira gure lantokitara, eta horrek beste testuinguru batera eraman gaitu. Zeintzuk izango dira etorkizuneko lanak?

ONDORIOAK

• Aro aldaketa

Garapen eredia errotik eraldatu eta iraunkortasuna eta bizia bermatzeko urte gutxi ditugu, eraldatzen hasteko unea da.

• Lankidetzaz

Sektoreen eta askotariko herritarren arteko elkarlana beharrezkoa da egungo erronka konplexuei erantzuteko.

• Agenda partekatua: eragileak inplikatzea

Eraldaketa sakoneko mugimendua sor dadin, ezinbestekoa da eragile ekonomikoak, publikoak, hezkuntzakoak, herrigintzakoak, herritarrak... guztiak inplikatzea.

• Esperimentazioa, eraldaketa, inpaktua

Iraunkortasuna bermatuko duen garapen eredia azkar garatzea beharrezkoa da, eta soluzio berrietarako ideazio eta esperimentazio aukerak sustatu behar dira.

• Pertsonak erdigunean: hartzaile - eragile

Herritarrak eta eragileak gara eraldaketaren motor; denontzako bizigarria izango den eskualdea sortzeko, denok hartu behar dugu parte bere diseinuan.

HURRENGO URRATSAK


Erronken sakontzea:

- Lanaren etorkizuna
- Lana eta inklusioa
- Trantsizio energetikoaren erronka

Sarea egiten jarraitzea

Esperimentazio guneak garatzen jarraitzea: prototipoak...

Lankidetzaz eta gobernantza eredu berriak aztertzen jarraitzea



Harpidetu zaitez buletinera

hemen



www.debagoiena2030.eus
komunikazioa@debagoiena2030.eus

Debagoiena, 2021.
